

Sustrai Erakuntza presenta su 'Informe sobre la gestión de los residuos domiciliarios en Navarra'

LA HAINA - EUSKAL HERRIA :: 12/05/2021

[Eusk/Cast] Crónica de un desastre evitable

[Euskara]

Nafarroako etxeetako hondakinen kudeaketari buruzko txostena

Ekidin daitekeen hondamendi baten kronika

Historikoki, **Nafarroa hondakinen kudeaketaz harro agertu da**. Uste hori aspalditik dator, Nafarroan sortzen genuen zaborrari irtenbide egokia bilatzen lehen esperientziak eman ziren garaietan. Hala ere, denbora aurrera joan ahala, are zabor gehiago sortzen dugu.

Gaur egun, **garai haietako esperientziarik onenak ahaztu egin dira**, eta ideia horiek martxan jarri eta oraindik jarraitzen duten lekuetan, ez zaie merezi duten errekonozimendua ematen. Ondorioz hondakinen kudeaketa zitala da. Esate baterako, Lizarraldean gertatutakoa dugu, non Lorea kolektiboaren esperientziak ezarri ziren, hondakinak behar bezala berrerabili eta birziklatu ahal izateko. Birziklatzen jarraitzeko ahalegina ez da errotu, eta Mankomunitate nagusiak **sektoreko enpresa handien sirena kantu eztien mende** geratu dira.

Horrela, Erriberak hondakinen planta eta zabortegi handi bat eraiki zituen diru publikoarekin, gero kudeaketa pribatuar emateko. Emaitza: ingurumen-arazo oso larriak eta hondakinak berreskuratzeko eta birziklatzeko interesik ez. Gaur egun, planta hori da Nafarroan bereizi gabe biltzen diren hondakinen ia erdia tratatzen duena. Iruñerriak, berriz, bide bera darama. Oraingoz, **Tuterakoaren antzoko hondakin-planta handi bat eraikitzea onartu berri du...**

Egoera kaskarragoan daude **hondakin organikoak**, hainbeste mimo eta tentuz Nafarroako etxe gehienetako sukaldetan bereizten direnak. Horiekin konposta ekoitzi beharko litzateke, kalitate handiko ongarri organikoa eta ekoizteko erraza. Holako konposta funtsezkoa da Nafarroako lurzoru higatuak hobetzeko. Hala ere, hondakin honen zatirik handiena beste enpresa pribatu batera eramatzen da, Caparrosoko HTNra, Valle de Odieta makroetxaldearen filiala. Nafarroako Erdialdeko eta Erriberako **lurzoruen eta ur-ibilguen kutsadura larriagatik** da oso ezaguna, duela gutxi salatu den bezala. Eta, gainera, enpresa honek **egungo behi-esplotazioa handitu nahi du**, isuriko lituzkeen hondakin kutsazileen kopurua handitzeko. Bada, kutsadura hori abeltzaintzako ustiategiko hondakinek eta Nafarroako sukaldetako hondakin organikoek osatzen dute. Horrela, **Nafarroako herritarren ahalegina kutsadura bihurtzen da**.

Ikusten dugu, beraz, nola sektoreko enpresa pribatu handien esku uzten ari garen gure

hondakinen kudeaketa. Eta horrek ingurumen-inpaktu larriak sortzen ditu, batez ere gure erkidegoko hegoaldean. Hori da Nafarroako hondakinen kudeaketaren errealtitatea, eta goitik behera ezeztatzen du Gobernuak sustatzen duen diskurtsoa, hau da, Nafarroan egiten dugun kudeaketa ezin hobea dela.

Ezin dugu denbora galdu. Ingurumen- eta baliabide-krisi larriek **ez digute uzten materialak alferrik galtzen**. **Baztertu eta birziklatzea lortzen ez dugun guztia galdu egiten da**. Horren ondorioz, haien erauzketa-tasa handitu behar dugu, eta hori gero eta zailagoa da; izan ere, **materialen erauzketa-maila gorenera iristen ari gara**, eta haien eskasiari aurre egin behar izaten hasi gara. Baldintza horietan, ezinbesteko da materialen zikloak ahalik eta gehien ixten saiatzea, ahalik eta erabilera gehien izan ditzaten.

Horregatik guztiagatik, **txosten honetan hondakinen kudeaketa parte-hartzailea, erraza eta hurbila proposatzen dugu**. Parte-hartzailea; izan ere, ez dago nahasten ditugun hondakinak bereizteko gai den tratamendu-plantarik, eta hasiera-hasieratik bereizi behar ditugu etxean. Eta, horretarako, ulertzeko arau errazak behar ditugu, bai eta hondakinak biltzeko sistemak ere, guztiok behar bezala bereizteko dugun erantzukizuna indartzeko.

Hala, proposatzen dugu etxeetako hondakinen berezketa lehentasunez materia organikoa bereiztean oinarritzea, horixe baita gehiena. Zati hori alde batera utzita, hezetasuna dela- eta gainerako materialak kutsatzeko joera baitu, erraz bereiz daitezke beira, papera eta kartoia, plastikoak eta metalak. Hondakin horiek biltzeko metodoak **agerian utzi behar du modu egokian bereizi behar direla**. Portaera txarrak zehazteko eta santzioak ezartzeko aukera eman behar du. Eta material horiek eramatzen diren instalazioek ahalik eta gertuen egon behar dute hondakinak sortzen diren lekuetatik, ahalik eta gutxien garraiatzeko, eta, beraz, ingurumen-inpaktua murrizteko. Halaber, txikiak eta errazak izan behar dute, eta, batez ere, kudeaketa publikoarekin.

Zentzu horretan, Nafarroan oraindik badira esperientzia onak. Adibidez, Lizarraldean aipatutakoaz gain, **Sakanakoa** dugu beste bat, birziklatza bultzatzen baitu, etxeetako ateetan gaika bereizitako hondakinak bilduz. Hori dela eta, herritarrek ondo bereizi behar dituzte hondakinak. Sakanak hondakinen tratamendu hurbila ere bultzatzen du, eta, horretarako, hondakin organikoak konpostatzeko planta txiki bat inauguruatu berri du.

Joera horiek bultzatu behar dira hondakinen kudeaketan. Hala ere, Nafarroako eta Mankomunitate gehienetako gobernuak ez dira ildo berean lan egiten. Txostenean ikus daitekeenez, **enpresa handiei mesede egin nahi die beti, eta hondakinak kudeatzeko sistema konplexu eta garestiak bilatzen ditu**: ingurumen-inpaktu larriak eragiten dituzten eta garai berriek behar dituzten materialak eta energia aurrezteko beharrei aurre egiten ez dieten sistemak.

Nafarroan, 2021ko maiatzaren 12a.

Sustrai Erakuntza Fundazioa

Web orrialdeak: www.sustraierakuntza.org eta www.fundacionsustrai.org

[Castellano]

Informe sobre la gestión de los residuos domiciliarios en Navarra

Crónica de un desastre evitable

Leer informe completo [PDF]

Históricamente, Navarra ha **presumido de su gestión de los residuos**. Es esta una creencia que viene de tiempos atrás, cuando en Navarra se dieron las primeras experiencias que trataban de buscar una salida adecuada a la cantidad de basura que generábamos, y que hoy día aun generamos en mayor cantidad.

A día de hoy todo aquello prácticamente ha desaparecido. **Las mejores experiencias se olvidaron**, y donde aquellas ideas se pusieron en marcha y aun continúan, no se les da el reconocimiento que merecen, y su gestión de los residuos es vilipendiada. Nos referimos a Tierra Estella, donde se implantaron las experiencias del colectivo Lorea para que los residuos pudieran ser reutilizados y reciclados adecuadamente. Su constancia en continuar reciclando no ha calado, y las principales mancomunidades han sucumbido a los **cantos de sirena de las grandes empresas del sector**.

Así, La Ribera construyó una gran planta de residuos y vertedero con dinero público, pero la entregó a la gestión privada. Resultado: problemas ambientales gravísimos y nulo interés por la recuperación y el reciclaje de los residuos. A día de hoy, esa planta es la que trata casi la mitad de los residuos que se recogen sin separar en Navarra. La Comarca de Pamplona, por su parte, lleva el mismo camino. De momento ha aprobado la construcción de una gran planta de residuos, de similares características que la de Tudela...

En peor situación están los **residuos orgánicos**, que con tanto mimo y tesón se separan en las cocinas de los hogares de gran parte de Navarra. Con ellos se debería producir compost, un abono orgánico de gran calidad y fácil producción. Fundamental para mejorar los erosionados suelos de Navarra. Sin embargo, la mayor parte de este residuo se lleva a otra empresa privada, HTN de Caparroso, filial de la macrogranja Valle de Odieta. Esta es tristemente famosa por la **grave contaminación de suelos y cursos de agua** en la Zona Media y Ribera de Navarra, tal y como se ha destapado recientemente. Y porque además **quiere ampliar su explotación**, para aumentar así la cantidad de residuos contaminantes que vertería. Pues bien, esta contaminación está formada por residuos de la explotación ganadera junto con los residuos orgánicos de las cocinas de Navarra. **El esfuerzo de la ciudadanía Navarra se convierte así en contaminación.**

Vemos, por lo tanto, como estamos dejando en manos de las grandes empresas privadas del sector la gestión de nuestros residuos. Y como esto crea graves impactos ambientales, sobre todo en la zona sur de nuestra comunidad. Esa es la realidad de la gestión de residuos de Navarra, por encima del mito, alentado desde el Gobierno, de la optima gestión que realizamos.

Y no podemos perder el tiempo. Las graves crisis ambiental y de recursos a las que nos enfrentamos no permiten que sigamos desperdiando materias primas. **Todo lo que desechamos y no conseguimos reciclar se pierde.** Como resultado, necesitamos aumentar su tasa de extracción, algo que cada vez es más difícil, dado que estamos alcanzando el **pico de extracción** de materias primas y empezamos a tener que lidiar con su escasez. En estas condiciones, se impone la necesidad de intentar cerrar lo más posible los ciclos de los materiales, para que tengan la mayor cantidad de usos posibles.

Por todo ello, **en este informe proponemos una gestión de residuos participativa, sencilla y cercana.** Participativa porque no hay planta que sea capaz de separar los residuos que mezclamos, tenemos que separarlos en casa desde el principio. Y para ello necesitamos unas reglas sencillas de entender, y sistemas de recogida de residuos que refuercen la responsabilidad que todos y todas tenemos en separarlos adecuadamente.

Así, proponemos que la separación de los residuos en los domicilios se base en separar prioritariamente la materia orgánica, que es la mayoritaria. Apartando esa fracción, que por su humedad tiene tendencia a contaminar los demás materiales, lo que queda es fácilmente separable en vidrio, papel y cartón, plásticos y metales. El método de recogida de estos residuos ha de poner de relieve la **obligación de separar de manera adecuada.** Debe permitir determinar los malos comportamientos y establecer las necesarias sanciones. Y las instalaciones a las que se lleven estos materiales deben de estar situadas lo más cerca posible a los puntos donde se originan, para minimizar su transporte, y por lo tanto su impacto ambiental. Así mismo, deben de ser pequeñas y sencillas, y sobre todo de gestión pública.

En este sentido, creemos que todavía queda alguna buena experiencia en Navarra. A la ya citada de Tierra Estella hay que unir la de **Sakana**, que potencia el reciclaje recogiendo los residuos separados selectivamente en las puertas de los domicilios, lo que obliga a la población a separar bien los residuos. Sakana impulsa también el tratamiento cercano de sus residuos, para lo que acaba de inaugurar una pequeña planta de compostaje de residuos orgánicos.

Estas son las tendencias que hay que impulsar en la gestión de los residuos. Sin embargo, los diferentes gobiernos de Navarra y de las mayoría de las mancomunidades no están por la labor. Como se puede comprobar en el informe, **su voluntad ha sido siempre la de favorecer a las grandes empresas, y buscar sistemas complejos y caros de gestión de residuos.** Sistemas que causan graves impactos ambientales y no hacen frente a las necesidades de ahorro de materias primas y energía que los nuevos tiempos precisan.

En Navarra, a 12 de mayo de 2021.

Fundación Sustrai Erakuntza

Páginas Web: www.fundacionsustrai.org y www.sustraierakuntza.org